

Andoain-Andoain zeharkaldia, Euskaldunarekin

Mendigoizale elkarteak datorren apirilaren 10ean mendi zeharkaldiaren edizio berria antolatu du. Hiru ibilbide aukeran: 10, 21 edo 42 kilometrotakoa / 6



**Poloniako mugara
joan eta Ukrainako
hiru errefuxiatu
ekarri zituztenen
lekukotza** / 2-3



**Euskal Herriko
Itzuliaren
kontakizuna,
egunero Aiurri.eus
webgunean** / 13



Adarra Trail lasterketa berria, antolatzaileen ahotan

Mendi lasterketa berria abiatuko da Andoaingo Goikoplazatik, maiatzaren 15ean / 12-13

aek
22.korrika

HITZEKIN

Aiurri.eus webgunean
KORRIKA 2022 atal berezia



Albisteak, deialdiak...
Aiurri Korrikarekin bat eginik



Joseba Maiza eta Pepe Landa, Zumea kalean, Oria ibaiaren ondoan. AIURRI

Poloniara bidaia, ukrainarrei laguntza eskaintzeko

Joseba Maizak eta Pepe Landak Polonia eta Ukrainako mugarako bidea hartu zuten martxoaren 10ean, errefuxiatuei laguntza eskaintzeko gogoz. Hiru ukrainarrekin itzuli ziren Andoainera, handik hiru egunera. Egindako joan-etorria azaldu diote Aiurri

Xabier Lasa ANDOAIN

Bi andoainarrak ez dira komunikabideetan oso agertu zaleak, eta kasu honetan Aiurrik jo du euren lekukoaren bila. Nahiago zuten egindako keinua ondo amaitu eta isilean pasa. Baina bestalde, gizarteari mezu bat transmititu nahiak bultzatu die egin dutena publikoki aitortze-
ra: guztion esku dago zerbait egitea Ukrainan edo munduko beste herrialdeetan gertatzen

diren krisi humanitarioen aurrean. Ukrainako gerra eta giza tragedia galanta telebistetako pantailak betetzen hasi ahala, hunkituta geratu zen Joseba

**ARROPA ETA
SENDAGAIK
HARTUTA
POLONIARANTZ
ABIATU ZIREN**

Maiza, gainerakoak geratu ginen antzera. Nolanahi ere, errealitatea etsipenez begiztatu eta ezintasunez egonean geratu baino, nahiago izan zuen ekin-tzara jo errefuxiatuei laguntze aldera: “Ipurterre samarra naiz, eta egun batetik bestera erabaki nuen autoa hartu eta hara joatea; ukrainarrei eskua nola edo hala bota nahi nien, oso garbi eduki gabe, etxean hartzeko ala beraiek nahi zuten

tokira eramateko izango ote zen. Egia esan, lehendik ere hartuta neukan esperientzia pixka bat Greziako Lesbos uhartean errefuxiatuen kanpaldietan, mediku gisa aritu nintzenean”.

Maizak inguruko ezagunen artean zabaldu zuen burutaldia, ea nor zegoen prest bidaide izateko. Era horretan, Pepe Landa animatu zitzaion. “Nik ere sentitzen nuen premia elkartasuna modu praktikoan erakusteko; baina elkartasuna ez estatuei, herritarri baizik, azken finean horiek baitira estatu-buruek sortutako gerren biktima zuzenak”.

Horrenbestez, martxoaren 10ean, arratsaldean irten ziren biak; itzuli, berriz, martxoaren 14an goizaldera itzuli ziren. Guztira, 6.000 bat kilometro errepidean.

Andoaindik abiatu ondoren, 2.600 kilometro egin ostean Ukrainatik 25 bat kilometrora dagoen Poloniako Przemysl hirira iristea izan zen euren gogoa. Bidaia nahiko “abentura” bilakatu zela onartu dute. “Frantzia eta Alemania zeharkatzea zen gure asmoa, baina bidean nahastu egin ginen eta Txekia aldean ere ibili ginen. Bestalde, istripua ere eduki genuen, azeri bat aurrez aurre jo genuen eta ondorioz kolpe-leungailua eta erradiadore hondatuta geratu ziren. Hori gutxi ez eta hurrengo goizean, izotzaren eraginez, autoaren lehen eta bigarren martxak bakarrik zebiltzan. Edonola ere, suerte onekoak izan ginen, autoa eguzkitan jarri eta halako batean motorra bere onera itzuli zen”.

26 orduko bidaia traketsaren bukaeran, noizbait heldu ziren Przemysl hirira. “Hipermerkatu handi baten antza hartzen zuen eremu batean zegoen errefuxiatuen harrera lekuak. Ukrainatik autobusetan, autoetan edo trenetan heldu ziren ehunka errefuxiatu egongo ziren bertan. Taldeka bilduta zeuzkaten euren destinoko lekuen (Portugal, Frantzia, Italia, Ingalaterra, Danimarka...) arabera sailkatuta, eskumuturreko identifikagarrien bitartez.

**HIRU UKRAINAR
EKARRI ZITUZTEN
ANDOAINERA.
HIRURAK PORTUGAL
ALDERA ABIATU DIRA**

Autoan arropa eta sendagaiak zamatuta zituzten Maizak eta Landak Andoainen. “Errefuxiatuei baliagarriak izango zitzaiezkela uste genuen. Baina keba! Berehala ohartu ginen oinarriko gauzak eskura zeuzkatela, eta nahiz eta gerra jasan ahalmen ekonomikoari dagokionez ez zirela gugandik gehiegi bereizten. Ez zuen zerikusirik Lesbosen Afganistango, Eritreako edo Siriako errefuxiatuei laguntzeko harrera guneetan nuen errealitatearekin”.

Landak jarraitu du Przemysl hiriko errefuxiatuen gunean topatu zuten errealitatea deskribatzeko orduan: “Desordena ordena batean” definitu zigun Valentziatik joandako boluntario batek; dimentsio handiko tragedia baten erdian egon arren, oso ondo antolatuta zeukaten dena, egia esanda”.

Errefuxiatu haien dramarik latzena zein den zehaztu digu Maizak: “geldi egonean, horma bati begira-begira, paralizatuta bezala, ordutan nola egoten ziren ikusten genituen; haien arpegietan agudo sumatzen zen jasaten ari diren esperientzia negargarria: bizitokia utzi egin behar izan dute, eta familia sakabanatuta geratu zaie, gizonetakoak frontean eta emakumeak eta haurrak ihesaldian. Etorkizuna, berriz, beltz ikusten dute; jaioterrira itzultzen diren egunean –baldin eta itzultzeko zortea badute–, inork ezin die ziurtatu familia osoa berriro bildu ahal izango dela, edota etxebizitza utzitako egoeran aurkituko dutela...”.

Uste baino zailago jendea ekartzea

Behin hara iritsita, autoan hiru pertsona ekartzeko borondatea agertzea izan zen Maiza eta Landaren helburu nagusia, agudo. Ustekabea, pentsatzen zutena baino gehiago kosta zitzaientzen beren asmoa agertu ahal izatea lehenbizi, eta azken muturre-raino eramatea ondoren.

“Arraro samar begiratzen gintuztela sentitu genuen hango egonaldian; ezkutuko arrazoiak mugituta ariko bagina bezala. Gurekin harremanetan jarri zuten boluntario batek argitu zigun asko eta asko emakume zurien salerosketan aritzen zen mafia-ren beldur zirela, eta arrotzekin fidagaitz zebiltzala horrexegatik. Arrazoi hori justifikatua egon ala ez egon, maiz sentitu genuen

errezeloz hartzen zutela gure presentzia, errefuxiatuek ez ezik baita boluntarioek ere. Bestalde, jakin genuenez, mafiaren funtzionamendua Espainiarekin lotzen zuten nonbait, aurrez gertatu omen zen gertakizun ilun bat zela medio. Gauzak horrela, etsia hartu genuen kasik; etxera laguntza praktikorik eskaini gabe itzuli beharko genuela pentsatu genuen”.

Azken saiakera gisa, nora joan argi ez zeukaten errefuxiatuen eremura hurbildu ziren batik bat. Eta kartel batean “Berlin, Paris, Espainia-San Sebastian” idatzi, eta hura eskuetan zutela hara eta hona ibili ziren biak. Batzuekin mintzatu eta besteekin mintzatu, frantsesez tarteka eta mugikorraren bidez ukrainiarra itzuliz tarteka. Bada azkenean, hiru pertsonekin bidaia lotzea lortu zuten.

“17 urteko mutiko bat, 25 bat urteko emakume bat eta haren 5 urteko haurra, txakurtxo batekin, prestatu ziren gurekin bidaiatzera. Hiru ere Portugal zeukaten buruan, sendia bertan zutelako; mutikoak aita zeukan han, eta harexeri telefonoz hots egin zion. Era horretan, aita hiruen bila Andoainera etorriko zela hitz eman zigun”.

Andoaingo bidean, azkenerako Tramite guztiak lotuta, bostekotea errepidean abian jarri zen halako batean, ordu mordoko bidaia egiteko asmoz. “Hirurek

isil-isilik egin zuten bidai erdia baino gehiago; ez zidan fidatzen gurekin. Amak haurrari ez zion guregana gerturatzen uzten, hankak luzatzeko geldialdiren bat egiten genuen aldiro. Kilo-metroetan barrena, baina, sendotzen joan zen gure arteko konfiantza. Andoainera heldu ginenean, aita zain geneukan. Hunkigarria izan zen besarkada, aita-emearena! Emakumeak, berriz, eskerrak emateaz gain dirua eskaini nahi izan zigun, berebiziko faborea egin omen geniolako”.

Poloniako joan-etorria egin zutela hogeit bat egun pasa di-relarik, atzera begira jarri dira berriro Maiza eta Landa. Horrela, gazi-gozotzat jo dute bizituko eskarmentua. Asebeteta daude hiru errefuxiatuei lagun du dielako, nahiko argi daukate hurrengo batean, beste modu batera, hariak ondo lotuta eta antolatuta alegia, mugituko dira.

Elkartasuna adierazteko modua, erakunde antolatuen bitartez

Azken egunetan, Eusko Jaurlaritzak eta Gurutze Gorriak elkarlanean, 945 222 222 telefonoa jarri dute eskura, Ukrainako errefuxiatuei harrera egiteko etxea eskaintzen duten pertsonentzat. Baita helbide elektronikoa: errefuxiatuak@euskadi.eus eta zuzeneko harremanetarako egoitza Donostian, Zorroagako gaina 41ean.

UKRAINA ALDERA JOAN AURRETIK MAIZA LESBOS ALDEAN MEDIKU GISA ARITUTAKOA ZEN

LAGUNTZA ESKAINTZEKO MODUA ESKURAJARRI DUTE EUSKO JAURLARITZAK ETA GURUTZE GORRIAK



KOMUNITATEA

EGUZKI TALDE EKOLOGISTA, ANDOAIN

Saretxo metalikoak



Barandetako behealdetan saretxo metalikoak ezartzeko lan dinamika abiatu du Eguzki. EGUZKI

2019az geroztik “Itsasoa hemen hasten da lelopean” kanpaina egiten ari gara Euskal Herriko herri askotan itsaso nahiz ibaietako hondakinen kopurua murrizteko asmoz. Izan ere, gure kale, zubi eta plazetako hainbat hondakin arin, bildukiak bereziki (plastikozko botila, gozokien plastiko, poltsa e.a.), ibai bazterretara edo zuzenean uretara isurtzen dira, gehienetan haizearen laguntzarekin. Honekin ez dugu zalantzan jarri nahi kale garbiketa, baina bai hori ez dela nahikoa hondakinak ibaira ez iristeko.

Kanpaina horren barruan hainbat jarduera egiten ari gara: sentsibilizazio kanpainak, hondakin bilketak (ibaia, erreka nahiz itsas bazterrean) eta neurri zehatzak proposatuz.

Egia esateko, Andoainen hainbat urtetan ibai garbiketarako antolatu izan ditugu kanpaina honi hasiera eman aurretik, eta kasu honetan, neurri zehatzak proposamenean zentratu nahi genuke.

Proposamena mamitzeko, Eguzki erakunde ekologista eta antinuklearrak zubietako eta barandetako behealdetan saretxo metalikoak ezartzeko lan dinamika abiatuta daukagu, eta dagoeneko udalerrri desberdinetan, elkarlanean, bultzatu ditugu neurri hauek plastikoak eta botilak ibaietan bukatu ez dezaten. Azpeitia, Azkoitia, Urretxu, Zumarraga, Elgoibar... saretxoak ezarri ditugun udalerrriak dira, bertako udaletxeen eta Eguzkiren arteko elkarlanaren ondorioz.

Elkarlanerako deia luzatzen diogu Andoaingo Udalari, hainbat proposamen luzatuz:

- Bekoplaza azpiko pasealekuan baranda ipini den tartean saretxo hauek ezartzea.
 - Herriguneko zubi guztietan behe saretxo metalikoak jartzea: Sorabilla, Santa Krutz, Txistoki eta Kale Berrikoa.
 - Miranda pasealekuan eta Zumea kaleko barandetan, espigoia barne, behe saretxo metalikoak jartzea.
 - Makaldegiko gunean etorkizunerako neurriak pentsatzen hastea.
- Oso pozgarria zaigu jakitea Makaldegiko estalkiaren atzean dagoeneko 25 bat metroko saretxoak jarri duela Udalak. Hasitako bideari jarraipena emateko deia egiten diogu Udalari.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idaizkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietako).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikiak: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



ZIURTAGIRIA:

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Urnietako
udala



Iban Corrochano, alokairuan ipiniko duen furgonetaren ondoan. AIURRI



Eskaintza zabala du, eta tailer zerbitzua eskaintzen du. AIURRI

Negozio berria Andoainen

Adunarako bidean, Balastrain-Matxinea industriguneko 9. pabilioian zabaldu dute negozioa. Webgunea: ikaivans.com. E-posta: info@ikaivans.com. Telefonoa: 943 09 81 32.

"Automozioa eta mekanika uztartuta sortu dut Ikai Vans"

IBAN CORROCHANO IKAI VANS

Ibilgailuekiko zaletasuna barnean gordeta eduki du umetatik. Tabernan eta enpresetan lanean egon ostean, autokarabanen eta konponketen negozioa martxan jarri du

Mikel Arberas ANDOAIN

Nolatan otu zitzaizun horrelako negozio bat sortzea?

Don Boscon automozio gradua ikasi nuen, eta urte luzez mundu horretan murgilduta egon naiz. Denek jakingo duzuen bezala, tabernan ere lanean aritu nintzen, baina bokazioa mekanika izan da. Familian ere arlo hori oso presente eduki dut. Gauzak horrela, automozioa eta mekanika uztartuta Ikai Vans sortu dut, Matxinea Balastrain industrigunean.

Horrelako negozio bat sortzeko ideia aspalditik dator ala bat-batekoa izan da?

Duela askotik ideia abstrakto bat nuen buruan, baina ez nekien zehazki zer egingo nuen. Nire kabuz sortutako eta jabetza propioko zerbait edukitzeko gogoia izan dut ia betidanik; gainera, nire zaletasunekin harreman estua edukitzea zen asmoa. Hasiere batean, negozioari forma eta itxura ematea kosta egin zitzaidan, baina, tira, aurrera egiten jakin dut.

Zaila izan da enpresa martxan jaritzeko prozesua?

Luzea izan da. Hala ere, prozesuak ez du ezer interesgarriarik, izan ere, gehiengo burokrasia lanak izan dira: paperak sinatu eta kontuak egin.

Zein zerbitzu eskaintzen du Ikai Vansek?

Proiektu interesgarria eta polita dela esango nuke. Azken urteetan, autokarabanen eta furgoneta kanperizatuen erabilera asko handitu da, ibilgailu bereziak dira. Hari horri tiraka, bi

zerbitzu eskainiko ditugu: batetik, kanperizatuen eta karabanen alokairua; bestetik, autokarabanen konponketa eta instalakuntza tailerra. Horrelako tailerrak egon badaude, baina dagoen eskaria kontuan hartuta eskaintza urria da.

Nolako ibilgailuak dituzu alkilerrean?

Batez ere autokarabanak. Kanperizazio mundua beste segmentu batean kokatuta dagoela iruditzen zait, nahiz eta gauza asko komunean eduki.

Nori bideratutako negozioa da?

Autokarabanak gustuko dituen edonori zuzendua dago, baina, bereziki, 35 eta 55 urte bitarteko pertsonak dira erabilera gehien emango diotenak; izan ere, adin horretan ekonomia-egonkortasuna handiagoa da eta familia giroan erabiltzeko ibilgailu egoikiak dira.

Dei asko jasotzen ari al zara?

Lehen asteburuan hiru autokarabana alokatu zituzten eta Aste Santuari begira ibilgailu gehienak alokatzea espero dut; jada ibilgailu batzuk erreserbatu dizkidate. Hala ere, irakargiak ipintzen hasten naizenean, dei gehiago jasoko ditudala pentsatzen dut.

Tailerrari dagokionez, ahoz ahokoak oso ondo funtzionatzen du; ez daude autokarabanetan espezializatutako tailer asko, eta eskaria handia da.

Zein da Ikai Vans negozioaren aurreikuspena?


Lan asko egitea espero dut. Alokairua ziklikoa izango da; hau da, udan eta Aste Santuan sumatuko dut mugimendu gehien. Neguan, berriz, gorabeherekin. Aldi berean, tailerrak lana emango didala pentsatzen dut, arestian aipatu bezala, eskaria handia baita eta eskaintza txikia.



ZATOZ GU PROBATZERA ANDOAINEN IREKIKO DUGU

APIRILAREN 6A

📍 ILLARRAMENDI ETORBIDEA, 1.



BOLTSA
BETE
PRODUKTU
OPARI*

P BEZEROAK



Proiektu honak 2018-az geroztik, hurrengo urteko irailaren 15 baino lehen, 2022ko azararen 15 baino lehen Aldi saltokietan eta Polakia-ban pertsonen fakturazko gureko kudeaketa gaitzak www.aldi.es/supermercados/polakia bidez.

Andoain-Andoain ibilbidea, apirilaren 10ean

XLVIII. edizioa ospatuko dute apirilaren 10ean, Euskalduna Mendigoizale taldeak antolatuta. Mendizaleek Aduna, Zizurkil, Asteasu, Larraul nahiz Alkizako paraje naturaletan txango ikusgarri bezain gozagarria egin ahal izango dute



Zuzendaritza berriko zenbait kide. Zutik, Federico Forkada, Joxetxo Oiarzun eta Jesus Mari Beraza. Eserita, Arantxa Mendizabal, Amaia Elgarresta eta Mertxe de Ucin. Argazkian falta dira, Willy Alcalá, Jose Mari Fernandez eta Jabi Gozalo. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Hiru martxa prestatu ditu Euskalduna elkarteak: Ibilbide luzea (42 km.), ibilbide motza (21 km.), eta familia giroko ibilbidea (10 Km.). www.zirkuitua.com web orrian eman daiteke izena. Izena emateko orduan gogorarazi dituzten argibideen artean, azpimarratzekoa da martxa luzeko ibilaldiaren gutxieneko denbora 05:30 ordukoa izango dela, eta gehienekoa 11:00 ordukoa. Bestalde, ibilaldiaren bukaerako kontrol postua eguerdiko 12:30ean irekiko da eta arratsaldeko 18:00tan ordutan itxi.

Jakiak eta dutxa, aukeran

Parte-hartzaileak ondo zaindu nahi dituzte Euskalduna elkarteak kideak. Eta horrexegatik, bidean barrena jarriko dituzten hiru kontroletan, fruta eta ura eskainiko zaie parte-hartzaileei, eta ibilaldiaren bukaeran, Ondarreta ikastetxean ogitartekoa eta edaria eskainiko zaie.

Bestalde, Ondarretako ikastetxean bertan aldagelak eta dutxak mendizaleen eskura jarriko dituzte, ibilaldien amaieran erabiltzeko.

Dimentsio handia hartzen dute antzeko ibilaldiek, inguruko herrietatik ez ezik Euskal Herri osoetik etorritako ehunka mendizalek osatzen duten ekitaldiek. Antolakuntzak boluntario ugari mobilizatu behar izaten du, makina bat eginkizun dagoelako egiteko: aurreko egunetan bidea markatu edo izen-emateak antolatu, egunean bertan elikagaien eta kontrolerako guneak, harrera gunea... Euskaldunak aurreikusita daukanez, egunean bertan 60 bat lagun izango dira

**IZENA EMAN DAITEKE
ZIRKUITUA.COM
WEBGUNEAN,
APIRILAREN 8A
AZKEN EGUNA**

arduraren bat hartuko dutenak ibilbideko punturen batean.

Bestalde, Euskaldunak eskerak eman nahi dizkie Andoaingo Udalari eta Ondarreta ikastetxeari ez ezik, baita ere hainbat merkatariei, azpiegitura utziaz edo eta jakiak eta edariak emanez mendizaleen egun handiarekin bat egin nahi izan dutelako. Horiexek dira: Urkola eta Txindoki tabernak, Hiru jatetxea, Ogiberri eta Ogidonosti okindegiak, Bastero kafetegia, Eroski hipermerkatua, Santa Krutz fruta-denda eta Lacturale.

Urteroko martxa berreskuratuta

Pandemia garaia mendien dinamikak hankaz gora jarri zuen, gizartearen gainerako arloetan bezalatsu. Gauzak normaltzen ari dira, ordea, eta 2022aren hasierarekin batera Euskalduna elkarteak zuzendaritza beregain hartu zuen lan-talde berriak normaltasunez heldu dio irteeren egutegiari.

Hiru ibilbide aukeran

- Ibilbide luzea (42 km.): 8 euro. Irteera, 07:00.
- Ibilbide motza (21 km.): 8 euro. Irteera, 08:00.
- Familia giroko ibilbidea (10 Km.): 5 euro helduek, doan umeek. Irteera: 09:00.
- Izena-ematea: www.zirkuitua.com web orrian. Azken eguna: apirilaren 8a.
- Aldagelak eta dutxak: Ondarreta ikastetxeko helmugan..
- Informazioa: Euskaldunako Kale Nagusiko egoitza edo 943 592 232 telefono zenbakira deituta. Ordutegia: Asteartea eta osteguna, 19:00-20:30.



Fermin Belamendia Arrillaga. AIURRI

Fermin Belamendia "Erdoxta" bertsolaria

IN MEMORIAM Plazaz-plaza askorik ez ibili arren, bertsotarako aparteko sena izan zuen andoaindarrak

Xabier Lasa ANDOAIN

Fermin Belamendia Arrillaga *Erdoxta* (Andoain, 1929) larunbatean hil zen, 93 urte zituela. Bere aldeko hileta elizkizuna egin zuten San Martin parrokiaren astelehenean. Plazaz-plaza askorik ez ibili arren, bertsotarako aparteko sena eta ausardia eduki zuen pertsona izan zen Belamendia. Fermin, Modesta Etxebesterekin 1956an ezkondu zen, eta lau seme-alaba eduki zituzten: Maite, Maria Angeles, Fermin eta Mertxe. Belamendia Arrillaga familia Sorabilla auzoan, Erdoxta baserrian bizi izan zen, eta hortik zetorkien ezizena. Andoaingo bertsogintzaren historia biltzen duen *Joxinixio, Pizkunde zapuztua* liburuan jasota dago bere ibilbidea: "Plazaz plaza eta bertso afarietan ibiltzeko bertsolari batek behar zituen ezaugarri guztiak zituen Ferminek. Kabida handiko memoria, arrazoiatarako malizia, buru azkartasuna, jendartekotasuna, lotsagabekeria sanoa, ahots indartsua...". Belamendiak berak ere ez zekien ondo nondik zetorkion zaletasuna: "Lagun Artea tabernan edo herriko beste edozein tabernatan eta sagardotegietan sartu, eta goizago edo beranduago bertsoari ekiten nion. Halaxe hezi nintzen Andoainean".

Horrela, urtarilaren 9an hasi eta hortik aurrera hamabostero antolatu dituzten sei irteeretan (Iribas-Irurzun, Imotzeko Bira, Errotz-Gaztelu, Bakio-Gorliz, Lapurdiko Bira eta Arantza-Arantza) eruz batu zaizkie mendizaleak horietara; zenbaitetan, gainera, autobuseko plaza bete ostean jendeak itxarotzez zerrandien geratu behar izan du, irteeran parte hartu ezinik.

Aurretik txangoa Gipuzkoako kostaldean

Datorren igandeari begira Gipuzkoako kostaldean (Aldazabal Torre-Sakoneta-Zumaia) txangoa prestatu dute, eta jada plaza guztiak beteta daude.

Euskaldunak mendizaleei eskaintzen dien formula erakargarria izan daiteke arrakastaren giltza: hamabostero irteera jakin bat antolatzen du, eta horri bigarren irteera eranstean dio; paraje beretsuan izan arren, leunagoa eta motzagoa izaten da alternatiba hori.

ALDAGELAK ETA DUTXAK AUKERAN IZANGO DIRA ONDARRETA IKASTETXEAN



Bertsolariak eta Hurria-Sahara elkarteak, Bastero Kulturguneko bertso-saioaren ostean. AIURRI

Elkartasunezko bertso saioa

Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi, Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Unai Gaztelumendi eta Oihana Iguaran bertsolariek eta Maddi Etxeberria gai-jartzaileak Sahararen aldeko bertso saioa osatu zuten Basteron, Hurria Sahara elkarteak antolatuta

Xabier Lasa ANDOAIN

Bertsotik eta kulturatik Saharari elkartasuna adierazteko modu polita izan zen martxoaren 27ko ekitaldia. Maddi Etxeberria gai-jartzaile gisa estreinatu zen Basteroko bertso-plazan, eta denetariko gaiak ipini zizkion seikoteari: frontera borrokatze- ra deitu dituzten Saharako bi gazte, batek joan nahi du eta besteak ez; Saharako kalimak Andoainera ekarritako hondar-aleak; Urkullu eta Covid19a; Buruntzan eraitsitako gurutzea; Siria eta Ukrainako errefuxiatuen estatus desberdina; regetoia eta beste musika generoen letra sexistak; ertzainen kontrolera iritsi den auto gidari erretzailea; lan istripuak eta abar.

Lehenengo agurreko saioan bertsolariek errimatarra eta arrazoi- etara eraman nahi izan zuten egunotan jende askok bizi duen

haserre, Espainiako gobernuaren erabakia dela eta. Hona Beñat Gaztelumendiren bertsoa, salaketaren kutsua harturik:

Beñat Gaztelumendi:

Korsika zauritutik Ukraina latzera, Espainiak Sahara saldu du atzera. Gu Andoaina gatoz urtero antzera, mundu puska honi bertsoak jartzera. Gu Andoaina gatoz urtero antzera, bestelako mundu bat imajinatzeraz.

MARTXOAREN 27KO HAINBAT BERTSOALDI BIDEOZ IKUS DAITEZKE AIURRI.EUS WEBGUNEAN

BURUNTZAKO GURUTZEA

Buruntzako gurutzea hizpide jarri zien Etxeberria gai-jartzaileak Mendiluze eta Martini: “Iazko abenduaren 18an, Buruntzako gurutzerik gabe esnatu ziren andoaindarrak. 1939an erregimen faxistak jarritako gurutzea zen, eta bailara osoa Buruntza mendia identifikatzeko balio zuen. Denboran bidaia- tzeko eskatuko dizuet biei. Zu, Alaia, Buruntzako gurutzea zara; artean lasai zeunden, bailara zainduz eta urrutira, errepideko kotxeren bateren argiekin entretzenituz. Aitor gaztea, beste hainbat kiderekin batera, zu eraistera iritsi den arte.

Alaia Martin:

Hemen gainean tinko nahiko nuke segi nire iritziz behintzat delako zilegi. Askok etortzen dira

ta azpian eseri, baina raro begira ez zabiltza zu neri? mendira etortzeko ez al da goizegi? (bis)

Aitor Mendiluze:

Gauean esnatu naiz izerditan grabe, berehala egin naiz erreminten jabe. Harritu egin zera nik nahita nahigabe. Begira nago baina betikan halare, laster begiratuko dizut parez pare (bis)

Alaia Martin:

Nik espero nituen pare bat olerki, ez hiru erreminta ta hainbeste antzerki. Hurbildu zara isilik emeki emeki, nahiz ta parean jarri zintezken xinpleki. Lasai, zure gainetik egongo naiz beti (bis)

Aitor Mendiluze:

Mintzatu umilago egizu mesede, jadanik ez daukazu len aina botere. Hor jarri zintuena jardun bazen trebe, zerbaiten sinbolotzat indar eta fede. Sinboloa izango da botatzea ere (bis)

Alaia Martin:

Baina etzazu egin hainbeste atake, esnatzen segi nahi dut urtero jotake. Alde hainbeste jende ta hainbeste alkate, ezin didazu egin horren merke kalte, ondare kulturala deitzen baitidate (bis)

Aitor Mendiluze:

Ondare horren karga nola daramagun! Beti alperrik gurtzen zertarako jardun. Indar hartzeko aukera badegunez egun, hitza pixkat aldatzen direla demagun, ba, ondareak hondar bihurtu ditzagun (bis)

Alaia Martin:

Zu ta zure lagunak abilak zineten,

bilatuz horrenbeste bide ta erreten. Historia ez liteke benetan errez ken, nahi didazu lurretik lotura bat eten. Ea zure gainera erori ninteken.

Aitor Mendiluze:

Ihes egin dezake len egin duenak, alperrik erorita zure ondorenak. Ondo ezagutzen ditut Andoaindarrak, gurutze asko dira bistan ez daudenak. Pixkanaka botako al ditugu denak? (bis)

BERTSOLARIEI ESKERTZA

Elkartearen izenean, Iñaki Otamendik bertsolariei eskerrak eman zizkien, beraien eskuza- baltasunak ahalbidetu baitu Basteron bertso saioa egitea, 2007az geroztik. Aldi berean, Otamendik gogoan hartu zuen Espainiako Gobernuak azken egunetan jakinarazi duen erabakia: “50 urte igaro dira ia, Marokok okupatu zuela Espainiako kolonia zena, eta ordudunik sahararrak banatuta bizi dira, lurralde okupatuetan batzuek, eta Aljeriako errefuxiatuen kanpaldietan besteak. Egunotan Sanchez presidentek esan du konponbide errealista bakararra autonomia dela. Baina Saharako herritarrek behin eta berriro esan dute hori ez dela inondik ere konponbidea; orain 50 urte NBEk berak adierazi zuen sahararrei eman behar zaiela hitza. Irtenbide errealista dela esaten digute, baina Marokoko erregea da betoa jarri duena”.

Eguno egoeran Europako hainbat herrialde eroso daude la esanez jarraitu zuen Otamendik: “Saharako baliabide naturalen (fosfatoa, arrantza...) usiaketa Marokoko erregearekin adostu dezakete, Saharako ordezkariak bizkar emanda. Eta bestalde, Afrikan dauden hainbeste gerra eta miseria egoeretatik ihes egiten duten pertsonen eskubideak zapalduko dira Espainia eta Marokoren artean akordioa gauzatzen bada. Horrexegatik, zera adierazi nahi dugu: nahiz eta Espainiako eta Marokoko gobernuak akordioa lortu, Espainiako herriak eta Euskal Herriak ez dugula onartuko”.



Korrika Urnietako Idiazabal kalean, 2017ko edizioan. AIURRI



Korrika Kaleberrian, erraldoi eta buruhandien konpartsak lekukoa eraman zuenean. AIURRI

"Lanean gabiltza Korrikari azken ukituak ematen"

LIDE SALBARREDI URNIETAKO KORRIKA-ARDURADUNA

Datorren astean zehar petoak jaso daitezke. Goizez, astelehenean eta ostegunean 9:30etik 11:30era. Eta, arratsaldez, astelehen eta asteazkenetan 15:00etik 17:00era

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
Gauean daukagu Korrika. Azken uneko lanetan murgilduta?

Azken egunak badatoz, eta horiekin batera, urduritasuna. Korrikaren bueltan, beti badago zer egina eta azkeneko egunetan zer esanik ez... Lanean gabiltza azkeneko ukituak ematen.

Non jasoko dute urnietarrek lekukoa, eta noren esku utziko dute, ondoren?

Azken urtetako edizioetan Heranitik etorri da Korrika eta Urnietako udalerritik pasa ondoren, Andoain aldera joan da; aurtun, ordea, aldaketa txiki batzuk egin dira ibilbidean. Oraingo honetan, Korrika lasarte-Oriatik etorriko da; Kostegi nekazal etxetik igaroko da eta herrirantz hartuko du, gero betiko lez, Andoain aldera joango da.

Zer moduz joan da kilometroen salmenta?

Oro har, Urnietan, pandemiak eragina izan duela nabaritu dugu. Ez bakarrik AEKn eta Korrikan, baita beste hainbat sektoreetan ere; eta ez da harritzekoa: autonomoen prezioen egoera, argi indarraren prezioa, gasolinaren egoera... Pandemia honek ondorio latzak ekarri dizkigu guztioi.

Hala ere, aipagarria da Korrikaren ilusioan ez duela eragin, izan ere, jendearen parte hartzea eta interesa nabarmentzekoa izan baita.

Lasterketa erraldoia iragartzeko, Korrika Eguna egin zen Urnietan. Zer moduzko harrera izan zuen?

Hasiera batean, kalean egin nahi zen Korrika eguna eta plazaz plaza ibili, herrian kale-ikusgarritasuna lortzeko; eguraldia ez genuen lagun eduki eta, azkenean, Egape frontoian egin genuen. Jende mordoak bildu zen

–baita euskaltegiko hainbat ikasle ere–, eta gustura gelditu ginen goizeko saioarekin.

Ondoren, hitzorduaren aitzakiaz, antolatutako al da ezer berezirik Korrika herritik igarotzen den egunera-ko?

Apirilaren 8an goizean goiz Korrika pasako da eta, gero, 10:00etan, Magale eta Egapeko HHko eta LHko ikasleek Korrika Txikia egingo dute. Azkenik, arratsaldean, udaletxean, etxeko txikienentzako zuzendutako ekitaldi bat antolatutako da.



andoaINDARRA
euskaraz

"Andoaindarrek erantzun bikaina eman diote Korrikari"

JOXEMI ARANBURU ANDOAINGO KORRIKA BATZORDEKO KIDEA

Gaingan daukagu Korrika. Azken uneko lanetan murgilduta?

Bete-bete lanean ari gara. Memento batzuetan gaiezka egiten digu, baina, tira, sarritan esaten dudana bezala, ez da asko falta eta pasako da.

Zer moduz joan da kilometroen salmenta?

Egia esan, oso ondo.

Andoaindarrek erantzun bikaina eman diote Korrikari. Ez dut ahozabala izan nahi, baina esango nuke orain arteko marka guztiak hautsi ditugula. 40 bat eragilek eramango dute lekukoa herrian eta 31 lekuko aldaketa egingo ditugu. Korrika bat baino giza-kate baten itxura handiagoa hartuko duela iruditzen zait. Ildo beretik tiraka, nabarmendu nahiko nuke, mota guztietako eragileek parte hartuko dutela; besteak beste,



AIURRI

enpresek, kultura eragileek eta alderdi politikoei beste batzuen artean. Gainera, bost eragile berrik parte hartuko dute. Hau ikusita, argi dugu herriak Korrikarekin bat egiten duela.

Gogoia sumatzen al duzue kaleak hartu eta euskararen alde korrika ibiltzeko?

Ez dakit pandemiak eragin duen halako parte hartzean, baina, argi dago, herritarrek normaltasun apur baten beharrean daudela.

Antolatu al da ezer berezirik Korrika herritik igarotzen den egunerako?

Hainbat ekimen antolatu ditugu. Apirilaren 7an, 8an eta 9an bildu ditugu guztiak. Hilak 7an hasiko da herrian Korrika nabarmentzen; 18:00etan kalejira bat egingo dugu Plaza Moretik behera, eta hainbat geldialdi egingen dira. Helburua, lekukoa eramango duten horiek kalejiran parte hartzea izango da. Ekimena 19:00tan amaituko da Zumea plazan, eta, ondoren, petoen banaketari ekingo diogu. Ekitaldi horretan parte hartuko dute bertsolariek eta Goiatz Salvador musikariak. Ekitaldi luzea egingo ez dugun arren, orduerdi bateko gauza ikusgarri bat lotu nahi genuen. Apirilaren 8an 08:45ean Korrika igaroko da Andoaindik eta 10:30ean Korrika txikia egingo dugu. Hiru ikastetxeek parte hartuko dute bertan.

Apirilaren 9an, Kultura sailarekin batera, "Frontona" antzezlan ikusteko aukera izango da Goikoplazan.



AIURRI

Korrika Txikia, Korrika ostean

Esolan sartzeko garaian, lehenxeago, iritsiko da Korrika eskualdera. Andoainen eta Urnietan ikasleek Korrika Txikiaz gozatzeko aukera izango dute. Ostiralean bertan izango da, beraz, Korrika igaro ondoren. 10:00etan Magale eta Egapeko HHko eta LHko ikasleek Korrika Txikia egingo dute. 10:30ean, Andoaingo ikasleen txanda iritsiko da.



ESTIBALITZ HERNANDEZ

andoaindarra, Mondragon Unibertsitateko Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako (myGADE) Gradu Dual-aren koordinatzailea eta MIK-eko ikertzailea da. 2018tik Europa mailan, RESER sarearen lehendakari ordea da (www.reser.net).

www.mondragon.edu/prest



"Dual eredua eta nazioarteko ikuspegia Mondragon Unibertsitateko myGADE graduaren ardatzak dira"

Mundua asko aldatzen ari da, enpresa kudeaketan profilak beharko dituzte enpresek etorkizunera begira?

Bai, teknologia berriek, digitalizazioak, ekonomia globalak, jasangarritasuna eta gizarte erantzunkizunarekiko sentsibilitateak enpresak desberdin erabakiak hartu eta jokatzera eragin dute.

Zergatik eta zertarako DUAL eredua?

Estatuko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan gradu bakarra gara, lau urteko esperientzia duala izateko aukera ematen duena. Dual eredua ikasteko modu ezberdin bat eskaintzen dio ikasleari, askoz ere praktikoagoa, Gradu bukatzerakoan 4 urteko edo 2 urteko lan esperientzia izango duelarik.

Aurtengoa zuen myGADEko ikasle guztiak DUAL ereduaren ikasiko dute. Zein dira DUALen egongo diren bi ibilbideak?

Ditugun bi ibilbide DUALetan, unibertsitatea, ez da ikasteko espazio bakarra izango, enpresa batean lan egingo baitute ikasle guztiak. Gradu amaitzean, 4 urteko edo 2 urteko lan esperientzia izango duzu aukeratutako DUAL ibilbidearen arabera. DUAL+ ibilbidea aukeratzen badute esperientzia duala intentsitate handiago batekin biziko dute, 1. mailatik 4. mailara arte. Ibilbide DUALa aukeratzen badute ikasketa enpresan 3. mailan hasiko da. Bi kasuetan Gradu Amaierako Proiektua enpresan burutuko dute.

Nazioarteko esperientziak ere inoiz baino garrantzi handiagoa hartu du, nola gauzatzen da graduaren?

Ikasturte guztietan atzerriko esperientzia ezberdinak bermatzen ditugu: 1. mailan Europara "Basque Companies abroad" programaren baitan, 2. mailan inter-campus erronka bat dago, atzerriko unibertsitateekin

batera, 3. mailan hilabeteko egonaldi bat egiten dute, New York, Mexico, Costa Rica, India eta Dublin-en, kasuan kasu, eta 4. mailan atzerriko unibertsitate baten edo/eta Gradu Bukaerako Proiektua atzerriko enpresa batean garatzeko aukera dute seihileko oso baten zehar.

Nola egokitzen dira zuen metodologiak eta klaseak enpresek eskatzen dituzten profiletara?

Ranking-ek estatuan enplegarritasun handieneko graduen artean kokatzen gaituzte. Mondragon Unibertsitatea Euskadiko lehen enpresa-taldeko kide gara eta horrek enpresetik oso gertu egoteko aukera ematen digu. Bestalde, konpetentzia teknikoek gain, soft skills edo zeharkako konpetentzien garapena bermatzen dugu, arazoak ebazpena, lidergoa, autonomia, talde lana, ikuspegi globala, analitikoak, kontzientzia eta konprometitu, eta abar.

Alba Cabrera Jauregi ESKUALDEA

Urte berezia da aurtengoa euskaltzaleentzat. Izan ere, pandemiak utzitako biharamunetik ihesi, euskal hiztun komunitatean egundoko garrantzia hartu duten bi hitzordu izango dira, aurki: lehena, udaberrian, kale-kantoian buelta emanda, hemen da-eta 22. Korrika. Bestalde, urte amaiera aldean ere izango da mihiak zorrozteko aitzakiarik, indartsu bezain gogoz baitator Euskaraldia: azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitarte gauzatuko da, hamabost egunez, “Hitzez ekiteko garaia” lelopean.

Orain lau udazken ekin zion bideari hizkuntza-ohituretan eragitea xede duen ariketa sozial masiboak. Hari horri tiraka, eta denborak ematen duen eskarmentuaz, aurreko bi edizioetako irakaspenetatik abiatu dira etorkizunera begirako erronkak finkatzeko. Euskaraldiko Gipuzkoako koordinatzaile orokorra da Sara Saizar, eta ezinbestekotzat jo du hitzaren eta ekintzaren arteko uztarketa, euskararen normalizaziorako bidean: “Herriarrek nahiz entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urratsak ematea da Euskaraldiaren lan-jardunaren egitekorik behinena”.

Hori horrela, aurten, “jauzi kualitatibo bat emateko apustua” egin du antolakuntzak, Saizarrek adierazi lez, “ariketaren berezko funtsari garrantzia emateko”. Horrez gain, parte-hartzea hedatu nahi dute, hots, Gipuzkoako koordinatzailearen esanetan, sektore berrietara iristea da helburua: “Ariketa ikusgarria egin behar dugu, eta, horretarako, kaleak hartu nahi ditugu, bai eta txapen presentzia areagotu ere, komunitate izaera egonkortzeko”. 2020ko edizioaren ostean, Siadeco elkarteak egin dako ikerketaren arabera, txaparen eragina “ukaezina” da: “Ingurukoek eurekin euskaraz egin dezaketela adierazteko erabiltzen du gehiengoak. Nafarroan altuagoa da portzentajea, eta adierazi dezake identifikatzeko behar handiagoa dagoela bertan, euskal komunitatea sortzearena”.

Lorpenetan ipini dute aurten begirada, eta, horretarako, erronka pertsonalak hartzeko gonbitea luzatzen diete antolatzaileek ahobiziei nahiz belarriprestei. “Konpromisoarekin lotura zuzena duen hitzordua da”, azaldu



Euskaraldiaren lehen edizioa gogoz hartu zen Urnietan. AIURRI

Euskarak kaleak har ditzan

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitarte izango da Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Hamabost egun hartuko ditu ariketa sozialak, “hitzez ekiteko garaia” dela aldarrikatzeko

du Saizarrek. Amua Euskaraldiak bota arren, “nork bere erronkari eutsi behar dio, ariketa soziala unean uneko premietara egokitu ahal izateko”. Horrez gain, ez ditu aipatu gabe utzi koordinatzaileak lorpen kolektiboak: “Ahalegin masibo batek fruituak ematen dituela antzeman behar dute parte-hartzaileek”.

Hirugarrena, erraztasunekin

“Hirugarren edizioa bigarrenaren jarraipen” gisatzat dute antolatzaileek eta aurten ere bi roletan aritzeko aukera izango

dute 16 urtetik gorako euskal herriarrek: ahobizi edo belarriprest. Ariketa eraginkorra egite aldera, izen-ematea sinplifikatu dute. Hala, soilik, parte-hartzaile berriek eman beharko dute izena. Alegia, aurreko edizioetan ariketa egin duten he-

**"NORK BERE
ERRONKARI EUTSI
BEHAR DIO, ETA UNEAN
UNEKO PREMIETARA
EGOKITU"**

rritarrek, beren parte-hartzea berrestearekin nahikoa izango da.

Horrez gain, ariguneek ere garrantzia izango dute ariketarako irauten duen hamabostaldian, entitateek ere euskararen aldeko konpromisoa har dezaten. Berrikuntza moduan, ez da bereiziko kanpo- edo barne-arigunerik; guztiak multzo berean sailkatuko dira.

Atzera begira jarrita

Norbanakoen nahiz entitateen harremanetan oinarritutako

ariketa da Euskaraldia; alabaina, jendarteko makina bat esparrutan bezala, horretan ere pairatu ziren pandemiaren albo-kalteak 2020. urteko edizioan: nola egin ariketa soziala, hartu-emanak galarazi ziren sasoietan?

Ipar Euskal Herrian, esaterako, herritarrak etxean sartuta gauzatu zen Euskaraldia. EAEn, bestalde, itxita egon ziren tabernak eta askotariko ariguneak. Egoeraz jakitun, pozik agertu zen antolakuntza bigarren edizioaren emaitza onekin, Saizarren aburuz: “Baldintza horietan egin izate hutsa bada jada arrakasta. Euskara alboratu zen pandemiaren eraginez, eta gure hizkuntza mahaigainetatzeko eta erdigunean ipintzeko beta eman zuen Euskaraldiak”. Siadeco elkarteak egindako ikerketaren arabera, orotara, 177.575 lagunek hartu zuten parte 2020ko Euskaraldian, eta izena eman zuten entitateek, guztira, 24.363 arigune sortu zituzten.

Halaber, are modu ageriagoan utzi zuen osasun-larrialdiak herri-batzordeen garrantzia, besteak beste, beren egitekoa kalera ateratzea delako, bai izen-ematean, bai tailerren bidezko pedagogia sozial-lanetan. Batzordeak Euskaraldiaren “bihotza” direlakoan da Saizar: “Zazpi probintzietan egiten da ariketa, baina, tokian toki, nork bere txokora egokituta gauzatzen da, eta horretarako dira batzordeak, beraiek ipintzen baitute martxan ariketa; ezinbestekoak dira Euskaraldiak aurrera egin dezan”. Hala, azkar baino lehen hasiko dira Buruntzaldea eskualdeko eragileak lanean, urte amaierara begirako prestaketa-lanetan.

Horregatik guztiagatik, “proposamen aktiboa” da Saizarrentzat Euskaraldia, herritarrak martxan ipintzen dituelako: “Kontzientzia hartzetik asko duen ariketa da, eta, erronkak iraun bitartean, gora egiten du euskararen erabilera, bai eta hamabostaldia bukatuta ere”. Horrez gain, zer pentsatua ematen du hitzorduak, eta aurretiko zein ondorengo erantzukizuna eskatzen dio parte-hartzaileari, euskararekin duen harremanaz hausnartzeko, bai eta horri bultzada emateko ere. Izurriteak izurrite, euskara indarberritu dadin, kaleak har ditzan.

BADATOR EUSKARALDIA!

2022ko azaroaren 18tik
abenduari 2ra ilusioz,
arduraz, gogoz eta emozioz
ekingo diogu ariketari.

Kaleak beteko ditugu herriz ere,
euskaraz hitz egitea inoiz baino
errazago izan dadin.

Belarriprestok eta ahobiziok aukera
berriak izan ditzagun lan egingo dugu
elkarrekin, auzoz auzo, herriz herri
eta arigunez arigune.

Hitzez ekiteko garaia heldu da



EUSKARALDIA

“Kantitatea ez, kalitatea lehenesten dugu”

BORJA AGOTE ETA JOSETXO BERASATEGI ADARRA TRAIL LASTERKETA

Maiatzaren 15ean izango da lehen edizioa, Andoaingo Goikoplazan hasi eta bukatuko dena. 22 kilometro, 1.060 metroko goi-behera; dagoeneko 200 lagunek eman dute izena

Andoni Urbistondo ANDOAIN

Andoaingo Goikoplazan egin dute hitzordua. Hilabete eta erdi barru Adarra Trail maratoi erdia hasi eta bukatuko den toki berean, hain zuzen ere.

Nor zaituztegu?

Jose txo Berasategi: Kirolariak gara. Borja surfista profesionala, eta ni triatleta, 20 urtez. Halako batean kirolari, lagun kuadrilla bat elkartzen gara, kirol probak antolatzeke asmoarekin. 2017an Kataluniako lasterketa antolatzailer batzuk etorri ziren Donostiara, txirrindularitza proba bat antolatzeke asmoz, Gran Fondo Donosti izenekoa. Ezagunak nituen, eta probako zuzendari izatea eskatu zidaten. Proiektua bertan behera utzi zuten azkenean, baina geuk jarraipena ematea erabaki genuen. Kirol Sport enpresa sortu genuen, beharrezko pausoa probak antolatzeke. Sekulako lana zela jabetu ginen azkar: baimenak, udalak, aseguruak, ibilbidea, boluntarioak... Bai nik eta bai Borjak geure lana daukagu, ez baikara jardun honetaz bizi. Ekimena forma hartzen hasi zen, tartean pandemia egonda ere, eta proba antolatu genuen, 2021ean. Harrera bikaina izan zuen, 1.000 lagunek parte hartu baitzuten. Izaera propioa eman



Borja Agote eta Jose txo Berasategi, antolaketa taldeko kideak dira. **AIURRI**

genion, zikloturismo kutsua, lehiakortasuna bigarren mailakoa izan zedin. Proba neutralizatu egiten genuen, anoa puntuetan parte hartzaileak elkartu, lehen eta azken parte hartzailearen tartean distantzia murrizteko. Tolosan 400-500 laguneko tropela elkartu ginen. Haimar Zubeldiak eta Markel Irizarrek aholkatu gintuzten.

Borja Agote: 1.000 lagun eta izen-emateko aukera itxi genuelako. Bestelakoan askoz gehiago.

Bestelako probarik antolatu duzue?

J.B.: Itsasoarekin ere harreman berezia dugu, eta igeri zeharkaldia antolatu genuen Pasai San Pedro eta Donostiako Zurriola hondartzen artean: Bale ehiztarien zeharkaldia.

Esan duzue ez zaretela profesionalak.

B.A.: Ez gara, ez. Akaso izango gara, egunen batean, baina oraingoz ez. Denbora asko jaten du jardun honek, lotu beharreko gauza asko dira. Zer esanik ez

proba egiten den atariko azken hilabetean. Izen emateekin lortzen dugun dirutik irabaziren bat geratzen bada, hurrengo urteko ekitaldian inbertitzeko gordetzen dugu. Lan handia da, benetan, halako ekitaldi bat antolatzea, gastu pila: Aseguruak, izen-emate plataformak kontratatzen ditugu, logistika eta seinaleztapen enpresak, boluntarioei ordaintzen diegu, korrikalarien poltsan hemengo produktuak, kamiseta on bat sartzen dugu... Ikusleek beren senide edo laguna uneoro non dagoen jakiteko modua izango dute helaraziko dugun aplikazio baten bitartez. Zerbitzu ona eman nahi diegu izena ematen duten korrikalariet, gastuak handitzearen truke bada ere. Gauzak ondo eginez etorkizunera begira kirolariak fidelizatzeko, egonkortzeko helburua daukagu.

J.B.: Kalitatea lehenesten dugu, kantitatea baino lehenago.

Nola sortzen da Adarra inguruan trail bat egiteko proiektua?

J.B.: Bizikleta gustuko dugu, itsasoa eta korrika egitea ere. Beste bi diziplinekin probak antolatu ditugu, orain, korrika, mendi maratoiak.

B.A.: Trail asko egindakoak gara. Mendian bizi garela esan genezake. Inigo Alborno lagunak esan zidan Adarra inguruan egiten zela proba eder bat, eta antolatzeke... Whatsapp talde erraldoi batean nago, korrikalariena. Bakarren batek bota zuen asmoa, eta sekulako bola egin zen, egin behar genuela eta beste, eta ezin izan genuen geratu. Pandemiak bakarrik lortu zuen atzeratzea. Urnietako Udalarekin hitz egin genuen, aurrena, gure proiektua aurkezteko, eta euren orduko lehentasun bakarra kiroldegi berria zela

erantzun ziguten. Andoaingo Udalarekin saiatu ginen ondoren, eta harrera hobea izan genuen. Udaleko Ixiar Olano kirol teknikariak babesa eman digu hasieratik. Aurten Andoaingen hasi eta bukatuko da, baina ez dugu baztertzen etorkizunean Urnietan abiatu eta bukatzea. Andoaingo Udaletxean baimena bakarrik eskatu dugu, dirurik ez. Aldundian bezala, Adarra eta Usabelartza aldean ingurumen arau murriztaile dezente daudelako. Hainbestera, lasterketako track edo bidea ez erakusteko eskatu digutela, azken bi asteak iritsi arte.

Noiz hasi zineten ibilbidea zehazten?

B.A.: Andoaingo Udalak baimena eman zigunean, lehenago ez. Behin baimena emanda, kirol oinetakoak jantzi eta egurra. Ibilbidea sortzen hasi ginen, Aldundiarekin harreman estuan beti. Andoaingen Urnietako lurretan barrena egiten du probak, eta herri bakoitzeko baso eremuek teknikari propioa dute. Udalarekin ere harreman eman korra eduki dugu: plaza eskatu dugu, aste honetan dutsak erabiltzeko aukera...

Eta zer da Adarra Trail? Maratoi erdia, mendi maratoi...

B.A.: Maratoi erdi bat. %25 pista edo errepedean barrena da. Lehen hiru kilometroak Leitzaran bidetik barrena doa, pistan. Gero mendi bidea, Besabiraino, eta handik Pardaki eta Mizpiradiko errepedean barrena, geltokia eta Goikoplazara. 6-7 ki-

"200 IZEN-EMATE DITUGU DAGOENKO, ETA 350EKO MUGARA AISE IRITSIKO GARELA USTE DUGU"

berria

ERREMONTE TXAPELKETA 2022

zuk badakizulako

GALARRETA JAI ALAI

ALDABE • APEZETXEA • URRUTIA II • LABAKA

ERREMONTE BIZIRIK

FINALAURREA

APIRILAK 2 LARUNBATA

16:30 - totik aurrera

SEGUROLA • ODEI • GOIKOETXEA V • MARTIRENA

URRIZA • LARRAÑAGA • EZKURRA II • AZPIROZ

ALDABE • APEZETXEA • URRUTIA II • LABAKA



Aurtengo edizioko kartela. ADARRATRAIL

lometro dira denera pista edo errepidean, 22 denera, eta 1.060 metroko desnibel positiboa. Zailtasun tekniko handirik gabeko proba da, Adarrako jaitsieran izan ezik. 01:40 - 01:45 denbora egingo du garaileak, eta oso ibilbide polita da.

350 laguneko langa jarri duzue. Nola doaz izen-emateak?

J. B.: Ondo, dagoeneko 200 izen-emate ditugu, eta 350eko mugara aise iritsiko garela esango nuke. Gu enpresa txikia gara, bertakoak, eta ez ekitaldi handiak antolatzen dituen enpresa handi horietako bat. Ahoz-ahokoa erabakigarria da guretzat. Jendeak ezagutzen gaitu, badaki lanean finak garela, eta proba batean parte hartzen duenak bestean ematen du izena.

Zergatik 350?

J. B.: Aldundiaren muga, ingurumen arauengatik. Lehen urtean arauak betetzen dituzun aztertzen dute, eta hala bada, parte hartzea hantitzeko baimena eman diezazukete, 500 lagunera arte.

38 euro izen ematea. Betiko eztabaida. Asko da, ez...

B.A.: Jendeak dirutza handi samarra dela pentsatzeko joera du, baina guk gure gastuen be-

rri ematen dugu gardentasunez, eta lasai asko esan dezakegu gure irabaziak eskasak direla, galtzen ez badugu. Probako poltsan kamiseta eman edo ez galdetu genien parte hartzaileei, eta kamiseta eskatu zuten gehienek. Hala egingo dugu. 350 izen ematerekin gastuak berdintzea lortuko dugu.

Ereñotzuko mendi lasterketa egun berean da. Zer gertatu da hor?

B.A.: Azalpen erraza du. Ternua etxearen laguntza jaso dugu, eta haiek baldintza bakarra jarri ziguten: Proba maiatzaren 15ean izatea. Ez 8an edo 22an, 15ean baizik. Eta hala egin behar izan dugu, nahitaez. Azaroan finkatu genuen data.

J. B.: Pandemia bukatzen ari den honetan mendiko probak egiteko grina handia sumatzen dut, eta bai gurea, eta Ereñozukoan, parte hartze handia izango dela esango nuke.


"350 IZEN EMATEREKIN PROBA ANTOLATZEKO GASTUAK BERDINTZEA LORTUKO DUGU"



KOMUNITATEA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Euskal Herriko Itzulia, kontakizuna egunero Aiurri.eus gunean



Iazko podiuma. Primož Roglic nagusitu zen, eta aurten ere irteeran izango da. EITB

Datorren astelehenean hasiko da, Hondarribian, eta larunbatean bukatu, Arraten. Tropeleko izar gehienak abiatuko dira, Tadej Pogacar izan ezik.

Hurrengo astelehenean hasiko da Euskal Herriko Itzuliko 61. ekitaldia. Gipuzkoan hasi eta bukatuko da, baina herrialdeko bi muturretan. Ekialdean hasiko da, Hondarribian, eta mendebaldean bukatu, Eibarko Arrate gainean. Txirrindularitza arnastuko da euskal errepideetan barrena sei egunez, ibilbidea eta parte hartzea ezin aproposagoak baitira zaleak bide bazterretara erakartzeko.

Parte hartzea maila handikoa izango da, ohiko legez, eta tropeleko izar distiratsuenen artean bakarrak egingo du kale. Hori bai, momentuko ziklista onenak, ziur aski: Tadej Pogacar. Esloveniarrak nahieran ari da denboraldi hasiera honetan, eta zurrumurruek zioten gure aberrian izango zela Primož Roglic herrikide eta iazko itzuliko garaileari txapela lapurtzeko ahaleginean, baina ez da hala izango. UAE taldekoa iparreko klasikak irabazteko ahalegin betean murgilduta dago, eta Flandesko Tourrean ariko da igandez. Biharamunean hasten da Itzulia, eta bere

taldeak ez du Euskal Herrira ekartzerik nahi izan, neke handia pilatu dezakeelako.

Bestelakoan, Hondarribiko irteeran izango dira ia denak. Iazko garailea, noski, Primož Roglic. Haren erregetza hausten saiatuko dira Kataluniako Volta irabazi berri duen Sergio Higuaita kolonbiarra, edota Juan Ayuso espainiarra. Julian Alaphilippe ere bertaratuko da, denboraldi hasiera kaskarrari buelta emateko asmotan, eta ikuskizuna emateko gertu beste hainbat lagun: Geraint Thomas, Evenepoel, Vingegaard, Enric Mas, Vlasov edo Gaudu. Euskaldunen artean Ion Izagirre, Cofidis taldeko ormaiztegiarra eta Pello Bilbao, Bahrain taldeko gernikarra dira itzulia irabazteko hautagai nagusiak. Bilbao bikain aritu zen Strade Bianche klasikan, eta Giroaren atarian Euskal Herriko Itzulia bere helburu nagusia dela esan du itzulia hasi aurretik. Ez dira euskaldun bakarrak izango. World Tour taldeko taldeetan ari direnez gain Euskaltel-Euskadi, Burgos, Caja Rural eta Kern-Pharma taldeetan ari direnetako batzuk ere abiapuntuan izango dira.

Ibilbide bihurria oso

Itzuliko ibilbidea oso bihurria da, eta ia egunero dago

tranpatxoren bat edo beste bidean. Lehen etapa, adibidez. 7.5 kilometroko erlojupeko laburra izango da Hondarribian. Laburra bai, baino erraza ez, eta diferentziak egotea espero da. San Telmo gazteluko igoera gainditu beharko dute ziklistek itsas kaian barrena, eta herri gunera bueltan, Hondarribiko Alde Zaharrean 200 metroko harbide zatia gainditu beharko dute, %9ko pendizarekin.

Bigarren etapa da, ziurrenik, denetan errazena, Hondarribia eta Viana artean, Nafarroako herri horretako helmuga pikoan jokoan segundotxo batzuk egon badaitezke ere. Ihesaldietarako aproposa da oso bigarren etapa. Hirugarrena Araban hasi eta bukatuko da, Laudiotik Amurriora. Tartean Aiara bailarako malda ezezagun bi, eta bertako en hitzetan triskantza handia eragin dezaketenak: Opellora eta Ozeka gainak, malda pikoak gorantz eta errepide estu eta hautsiak maldan behera.

Laugarrenak Gasteiz eta Zamudio lotuko ditu, eta azken tartean, Urruztimendi eta Vivero mendatetxo pikoak. Bosgarrena Bizkaian korrituko da ia erabat, hondarrean Eibartik egingo duten pasabidea izan ezik. Mallabiko bukaera pikoak da oso, %16ko maldak daude azken kilometro erdian, eta oilarren artean borroka espero da. Etapa zailena, eta erabakigarriena, seigarrena. Arraten bukatuko delako, baina aurretik mendate festa handia dagoelako. Gehienak, gainera, pikoak: Elkorrieta, Endoia Zestoatik, Azurki Lasturtik, Gorla Azkoititik, Krabellen (4.1 %10.5eko malda), Urkaregi eta Usartza, denetan azkena: 4.5 kilometro, eta %8.8ko malda batez beste. Eguraldi txarra festara batzen bada, menu dotorea. Ikuslearentzat, noski.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 31

ANDOAIN Erakusketa

"Lumineszenteak", Mariezkurrena kazetaria eta Pastor argazkilaria. Emakumeen egoera gordina zapaldutako lurraldeetan. Erakusketaz gozatzeko azken egunak.

Bastero. Apirilak 1 bitarte.

ANDOAIN Jabekuntza Eskola

2022ko udaberriko eskaintza prest dago: batukada, tailerrak, autodefentsa feminista...

Informazioa:

berdintasuna@andoain.eus.

URNIETA Kontzertua

Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasleen kontzertuak: Ikasleen kontzertu orokorra.

18:30, Sarobe.

OSTIRALA 1

ANDOAIN Aurkezpena

Ernaren gazte martxaren aurkezpenean Goiatz zuzenean ariko da, emanaldi akustikoan.

18:30, Irunberri.

URNIETA Kontzertua

Lurdes Iriondo Musika eskolako piano-ikasleak eta Easo abesbatzako bakarlariak.

19:00, Sarobe.

ANDOAIN Antzerkia

"Tarara", Bilboko San Frantzisko auzoan 70eko hamarkadan kokatutako antzezlan. Sandra Ferrus, Kepa Errasti, Jurdana Otxoa eta hainbat aktore gehiago igoko dira taula-gainera.

19:00, Bastero.

IGANDEA 3

ANDOAIN Antzerkia

"Ganbara" lanak, baserri mundu baten oroitzapenak berreskuratu nahi ditu. Markeliñek horrela aurkeztu du antzezlan: "Sustraietara egindako bidai emozional honetan, iragana gogoratuko dugu, etorkizunari aurre egiteko". 6 urtetik gorakoentzat.

12:00, Bastero.



2017ko peto-potea Andoainen. AIURRI

ANDOAIN Korrikaren bezperan, Peto Potea udalerrian barrena

Arratsaldeko 18:00tan hasita, Peto-Potea udalerrian barrena. Hauxe izango da ibilbidea: 18:00 Plaza Morea; 18:20 Juanita Alkain plaza; 18:40 Zubiaurre etxea. 19:00tan, Zumea plazan, Korrikako petoak banatuko zaizkie herriko eragileei.

Apirilak 7, osteguna. Plaza Morea (Bastero)-Zumea plaza. 18:00.

ASTEAZKENA 6

ANDOAIN Tailerra

Jabekuntza Eskolarekin, kosmetika naturala lantegiaren hasiera. Dinamizatzailea: Kris Lizarraga.

18:00-20:00, Urigain.

OSTEGUNA 7

ANDOAIN Korrika

Peto potea. Petoa banatuko zaie parte hartzaileei. Plaza Morean hasiko da eta Zumea plazan amaitu.

18:00, Plaza Morea.

ANDOAIN Tailerra

Jabekuntza Eskolarekin, gorputz kontzientziatik mugimendu askera tailerra. Dinamizatzailea: Maider Oartzabal.

18:00-20:00, Urigain.

OSTIRALA 8

ESKUALDEA Korrika

Peto potea. Plaza Morean hasiko da eta Zumea plazan amaitu.

08:13, Urnieta. Lasartetik dator.

08:43, Andoain. Urnietatik dator.

10:30, Korrika Txikia Andoainen.

ANDOAIN Erakusketa

"Punctum", Pedro Gaztañagaren margolanen bilduma.

Apirilak 8-30.

ANDOAIN Dantza

"Idiotak", Bamboo dance konpainiaren eskutik. Eduardo Galeanoren lan oparoan oinarritutako ikuskizuna.

Estreinaldia eta ondoren solasaldia.

19:00, Bastero.

LARUNBATA 9

ANDOAIN Korrika

"Frontona" ikuskizuna: Janire San Sebastian, Anne Maiza, Unai Ormaetxea, Josu Artutxa, Iñigo Otaegi eta Andoni Egaña.

12:00, Goikoplaza.

ANDOAIN Kontzertua

Zelanda eta Liher taldeak.

19:00, Bastero.

IGANDEA 10

URNIETA Antzerkia

"Kasilda, bukatzen ez den sua".

19:00, Sarobe.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Malnazidos**

Lar., 2. 19:30, 22:00.

Ig., 3. 19:30.

Ast., 4. 19:30, 22:00.

Los tipos malos

Lar., 2. 17:00.

Ig., 3. 17:00.

La última película

Ig., 10. 19:30.

Ast., 11. 19:30, 22:00.

Peter Rabbit 2:

A la fuga

Ig., 10. 17:00.

Turandot, opera

Apirilak 12. 19:30.

Camea Cafe

Apirilak 16-19.



SINOPSIS

**MALNAZIDOS**

Zuzendaria: Javier Ruiz Caldera, Alberto de Toro. **Aktoreak:** Miki Esparbe, Aura Garrido, Luis Callejo, Alvaro Cervantes, Manel Llunell, Jesus Carroza, Maria Botto... **Herrialdea:** Espainia. **Generoa:** Thriller, beldurrezkoa. **Iraupena:** 101 minutu. **Urtea:** 2020.

Arerio berriak batuko ditu etsaiak

36ko Gerran oinarritutako fantasiako eta beldurrezko filma da, Sitgeseko jaialdian lehiatu zena. Nazionalak eta

errepublikarrak aurrez aurre ari direla, ez ohiko gertaera batek elkarrekin lan egitera behartuko ditu.

**LOS TIPOS MALON**

Zuzendaria, gidioa: Philippe Lacheau. **Herrialdea:** AEB. **Generoa:** Pierre Perifel. **Iraupena:** 100 minutu. **Hizkuntza:** Marrazki Bizidunak, abenturak. **Urtea:** 2022.

Super heroiei buruzko komedia

Orain arteko lanik zailena egitea egokitu zaie bost gaizkile ezagunei. Zein da lan hori?

Ondo portatzea. Aaron Blabeyren izen bereko liburu ilustratuetan oinarritzen da filma.



Akordioa lortu dute lau eguneko greba mugagabearen ostean. ELA

Zuzendaritza eta langileen arteko akordioa Orbelanen

Lau eguneko greba mugagabearen ostean, akordioa lortu dute Andoaingo enpresa ezagunean

Erredakzioa ANDOAIN
Orbelan Plasticos enpresan akordioa lortu dute, lau eguneko greba mugagabearen ostean. Horrela, 2022 eta 2023 urteetarako hitzarmena sinatu dute zuzendaritzak eta langileen ordezkariak. Soldatak eta bestela-

ko baldintzak hobetu dituzte, gehiengoa duen ELAren arabera. Izaskun Unanuak honakoa zioen: "Enpresan emakumeek osatzen dute gehiengoa; gure ustez, ez da kasualitatea lantegi berean ezaugarri hori eta lan baldintza kaxkarrak batzea".

Kirol arloko solasaldia

Joan zen martxoaren 24an Nora Mendizabal pilotaria, Nahia Zudaire igerilaria eta Larraitz Lukas Realeko jokalaririk ohia Ainara Arratibel Berria egunkariko kazetariarekin solasean aritu ziren, Andoaingo Udaleko Berdintasun sailak martxoaren 8rako antolatutako egitarauaren baitan. Solasaldiaren bideo osoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean.



AIURRI

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Markel!
Gure etxeko mutikoak 10 urte beteko ditu! Ondo pasa eta muxu handiak. Etxekoak.



ANDOAIN
Irati Martinez!
Martxoaren 31an 12 urte! Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez. Asko maite zaitugu.



ANDOAIN
Zorionak Nekane
Urte askuan Nekane! Apirilaren 5ean ospatuko dugu. ATERPEko lagunak.

Eraisketa lana Ama Kandidan

Astearte goizean hondeamakinek Ama Kandida etorbideko eraikin zaharrak botatzeari ekin diote. Hirigintza mailako aldaketa handia emango da bertan, auzune berria sortuko baitute. Zubi-Etxe ondoan dagoen 5 solairuko eraikina botatzen hasi ziren, eta hurrengo egunetan Zubi-Etxeko guztiak botako dituztela espero da. Hilabeteak zeramatzen hustuta.



AIURRI





ANDOAIN GO

INFORMAZIO GEHIAGO
📞 943 59 35 25
www.andoainikastola.eus



IKASTOLA

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Aurten, bost urteko ibilbidea bete du Lasarte-Oriako "Imagine" dendak. Eta ba al da ezer hoberik urteurren borobila sari batekin ospatzea baino? Oso eskertuta dago Ainhoa Oyarbide urnietarra, dendaren burua. **Saria jaso berri du zure dendak, Imagine arropa-dendak, orain gutxi Gipuzkoako Ganberak Merkataritza-Enpresa sarien XXVIII. edizioan. Ezusteko atsegina, ezta?** Helbide elektroniko bat bidali zidaten lehiaketaren berri eman ez eta izena emateko proposatuz. Harritu egin ninduen mezuak, baina galtzeko ezer ez neukanez, parte hartzea erabaki nuen. Lehen, enpresen artean egiten zen bozkaketa, baina, orain, herritarrek dute irabazleak aukeratzeko ahalmena. Eskualdeka antolatzen da, eta nire denda Lasarte-Orian dagoenez, Buruntzaldean hartu nuen parte. Bada, egun batean, gizon bat sartu zen dendara irabazlea nintzela esanez. Zelako sorpresa!

Gipuzkoako hamar merkataritza-enpresa nabarmenen artean dago zure denda. Zer behar du saltoki batek guztien artean nabarmen izateko?

Xarma izan behar du eta herriarren arreta deitu. Horrez gain, asko zaintzen dut bezeroekin dudari harremana; ezagutzen ditut nigan jotzen duten herriarrak, eta hori, adibidez, merkatalgune handi batean, ezinezkoa da. Gainera, pandemiaren, oso agerikoa izan zen tokiko dendaren garrantzia eta horiek herriarekin zuten lotura. Halere, orain, goranzko joera hartzen ari da berriro ere online bidezko erosketak.

Zerekin egingo du topo herritarrek "Imagine" dendara sartzen denean?

Denda oso txikia da, baina ahalgin handia egiten dut, herriarren premiei erantzun eta beren gustukoa den arropa ekartzeko. Esaterako, orain bi aste buru, Madrilan izan nintzen eta bezero batek eskatutakoa bilatzen aritu nintzen, tartean; hori ez du edonork egiten. Nire lan-jarduna ez da dendan amaitzen.

"NIRE JARDUNA EZ DA DENDAN AMAITZEN. GOIZEKO ORDU TXIKIAK ARTE LANEAN ARITZEN NAIZ"

"Tokiko merkatariek bezeroak zaintzen dituzte"

AINHOA OYARBIDE URNIETARRA, IMAGINE DENDAKO ARDURADUNA

Gipuzkoako Ganbera Merkataritza-Enpresa sariak banatu ditu, berriki. Ainhoa Oyarbide izan da garaileetako bat, "10bitxiak" kategorian. Eskualdeko onena izan da



Ainhoa Oyarbide Lasarte-Oriako Geltoki kalean duen dendan. AIURRI

tzen; zenbaitetan, etxean egoten naiz goizeko ordubiak arte jendeak eskatutakoaren bila, baita asteburuan ere. Tokiko merkatariek bezeroak zaintzen dituzte, eta, beno, nik zortea daukat, izan ere, behin eta berriro errepikatzen dut: nire ustez, munduko bezero onenak ditut. Baten bat lagun bilakatu da, pentsa!

Nerabeetatik hasi eta adinekoetara bitarteko jendea sartzen da nire dendan. Arropa-markei dagokionez, Tifosirekin egiten dut lan; oso errentagarria da kalitatearen nahiz prezioaren aldetik, esate baterako, bake-roetan, aski ezaguna da marka. Bestalde, Minueto markako soinekoak ditut, eta Brave Soul nahiz Lilu markak aurkituko ditu bezeroak nirean.

Dendako erakusleihia, gainera, oso modu deigarrian duzu apainduta.

Nik neuk osatzen dut, eta urteko une jakinetan apaintzen dut, zenbait egun berezi aitzakia gisa hartuta, izan San Valentín, izan Arimen Gaua... Hori dela eta, Lasarte-Oriako erakuslehoi lehiaketa irabazi dut, birritan.

Egoitza Lasarte-Orian izan arren, ba al daukazu bezerorik herriko mugetatik kanpo ere?

Jakina. Bestez ere, eskualdetik gertu, hala nola, Urnietatik, Usurbildik, Zubietatik, baita Hernanitik nahiz Donostiatik ere.

Ba al dago modurik zurekin online bidez harremanetan ipintzeko?

Denda txikia da nirea; beraz, oraingoz, Instagrametik, Facebooketik eta WhatsAppetik jarri daiteke nirekin harremanetan, online bideari dagokionez. Webgunea eduki nahiko nuke, Lasarte-Oria eta inguruetatik at ere nire berri izan dezaten; alabaina, horretarako, biltegi handiago bat behar dut. Komunikazioa landu beharra dago jendeak zure berri eduki dezan.

Imagine denda

Geltoki, 19. Lasarte-Oria.

WhatsApp: 657 71 11 61.

Instagram: @imaginelasarte.

Facebook: Imagine Lasarte.

"AHALEGIN HANDIA EGITEN DUT, HERRITARREN PREMIEI ERANTZUTEN"